


Aztertu arreta handiz hurrengo grafikoa eta erantzun ondoren datozen galderari.

Ikasleak adin-taldeka. Araubide orokorreko irakaskuntzak. Euskal AE



Iturria EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren Estatistika

❖ Grafiko horretan ematen diren datuak kontuan hartuta, 1982/83 eta 2006/2007 ikasturteen artean ikasle kopurua gehitu ala gutxitu egin zen?


❖ Egizu zenbakizko zenbatespen bat 1982/83 eta 2006/7 ikasturteetan 6 eta 11 urte bitarteko zenbat ikasle egon zen jakiteko.

❖ Adin-tarte bakarrean gehitu da ikasle kopurua, zeinetan? Zein ikasketa motakoa da tarte hori?

❖ Beste adin-tarte batean oso gutxi murriztu da ikasle kopurua. Zeinetan?

❖ Datu horien bidez zein azalpen orokor eman dezakezu?

Ikasleak irakasteredu elebidunaren arabera (%). Haur-Lehen Hezkuntza. Euskal AE



(\*) Euskaraz ikasgai moduan ikasten dute (A eredu)

Iturria EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila. Irakaskuntzaren Estatistika

❖ Grafikoak hartzen dituen urteen artean, zein hizkuntzak izan du ikasle gehiago? Eta zeinek gutxiago?

❖ Grafikoko datuak hartuta, 1991 eta 2005 urteen artean euskarazko irakaskuntza bikoiztu baino gehiago egin dela esan dezakegu? Arrazoitu erantzuna datuen bidez.

❖ Egia ala gezurra al da irakaskuntza elebidunak azken urteetan behera egin duela? Arrazoitu erantzuna datuen bidez.

❖ Datu horien bidez zein azalpen orokor eman dezakezu?